

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	PANELAK OIHALEZTATZEKO ETA TAPIZATZEKO TEKNIKAK	Iraupena	40
		Baldintzatua	
Kodea	UF1036		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Altzariak eta hormak tapizatzeko eragiketa osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Hormak oihalezatzea eta horma-panelak tapizatzea	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Mozteko, mihiztatze eta akabera egiteko makinak prestatzea (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak (zeharkakoa)		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0430_1 HORMAK MARKOZTATZEA, APAINTZEA ETA OIHALEZTATZEA, ETA HORMA-PANELAK TAPIZATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin eta, partzialki, LB3 eta LB6 lanbide-burutzapenekin, panelak oihalezatu eta tapizatzeko markatze-, mozte- eta mihiztatze-eragiketen espezifikotasunei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hormak eta sabaia oihalezatze eta horma-panelak tapizatzeko prozesuak aztertzea.

EI1.1 Hormak eta sabaia oihalezatze eta horma-panelak tapizatzeko teknika desberdinak deskribatzea, baita horiek abantaila eta oztopoak ere.

EI1.2 Hormak eta sabaia oihalezatu eta horma-panelak tapizatzeko prozesuak ezagutzeko behar den informazio tekniko interpretatzea.

EI1.3 Aplikatu beharreko tekniken arabeko prozesuaren eragiketa ezberdinak deskribatzea, eta hormak eta sabaia oihalezatze eta horma-panelak tapizatzeko prozesuetan erabiltzen diren materialekin erlazionatzea.

A2: Hainbat prozeduraren bidez materialak prestatu, markatu, moztu eta/edo mihiztatzea, egin beharreko oihalezaketa edo tapizaketaren arabera, segurtasun-arauak betez.

EI2.1 Hainbat materialen prestatze-, mozte- eta mihiztatze-prozedurak deskribatzea, parte hartzen duten parametroak kontrolatuz, materialak hondatu edo desbideratzea saihesteko.

EI2.2 Artikuluan oinarrituz, materiala hautatzea, eta zabaltzea edo kokatzea, prozesurik egokienari jarraikiz, materialaren kondizioen arabera: tolesik gabe, lerrokatuta, beharrezko tentsioarekin, hariaren noranzko egokiarekin, aprestu egokiarekin eta norabide egokiarekin.

EI2.3 Txantiloak eta patroiak materialaren gainean markatzea edo marraztea, hainbat prozeduraren bidez, eta lotura-puntuak, oihaltzerren akaberak eta apaingarri edo hornien kokapenak adieraztea, osteko mihiztatze-lana errazteko.

EI2.4 Mozteko eragiketak trebetasunez egitea, modu ordenatuan, txukuntasunez, zehaztasunez eta segurtasunez, prozedura eta teknika egokiak aplikatuz, segurtasun-arauak betez.

EI2.5 Moztutako osagaien kalitatea egiaztatzea, modu zorrotz eta eraginkorrean, eta detektatutako anomaliak zuzentzea.

EI2.6 Mihiztatze-eragiketak trebetasunez egitea, lotura-mota bakoitzari egokitutako metodo eta teknikak erabiliz eta estetika- eta segurtasun-irizpideei jarraikiz.

EI2.7 Horma bat oihalezatu edo tapizatzeko osagaiak prestatu, moztu eta mihiztatze kasu praktiko jakin batean:

- Jarduerak antolatzea, jasotako informazio teknikoaren arabera.
- Behar diren makina, erreminta eta lanabesak identifikatzea.
- Txantiloak edo patroiak materialaren gainean markatzea edo marraztea.
- Mozte-eragiketak trebetasunez egitea.
- Moztutako osagaien kalitatea egiaztatzea.
- Mihiztatze eragiketak trebetasunez egitea, ordenatuki, txukuntasunez, zehaztasunez eta segurtasunez, lotura-mota bakoitzari dagozkion metodo eta teknikak aplikatuz.
- Osagai mihiztatuen kalitatea egiaztatzea, modu zorrotz eta eraginkorrean, eta detektatutako anomaliak zuzentzea.

A3: Hormak eta sabaia prestatu eta oihalezatzea, kalitatez eta segurtasun-arauak betez.

EI3.1 Hormak edo sabaia hainbat teknikaren bidez oihalezatze prozedurak deskribatzea, parte hartzen duten parametroak kontrolatuz, materialak hondatu edo desbideratzea saihesteko.

EI3.2 Hormak edo sabaia oihalezatze erabiltzen diren materialak identifikatu eta sailkatzea.

EI3.3 hormak edo sabaia oihalezatzeko prozesuan gehien erabiltzen diren erreminta eta makinak identifikatzea.

EI3.4 Horma edo sabai bat oihalezatzeko kasu praktiko jakin batean oinarrituz:

- Jarduerak antolatzea, jasotako informazio teknikoaren arabera.
- Behar diren makina, erreminta eta lanabesak identifikatzea.
- Kartoizko zerrendak edo arrastelak prestatzea eta hormako panelean kokatzea, marko-egitura osatuz eta barruko zulo edo irekiguneen inguruan, informazio teknikoari jarraikiz eta segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Muletoia marko-egituraren barruan finkatzea, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Oihala edo panela zabaltzea eta egituraren gainean zuzenean grapatzea, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Oihalezaketaren akabera edo errematea egitea, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Emaizten informazio teknikoa betetzea.

A4: Horma-panelak prestatu eta tapizatzea, kalitatez eta segurtasun-arauak betez.

EI4.1 Horma-panelak tapizatze prozedurak deskribatzea: goiburu, bionbo, galeria zurrun edo lanbrekinak, hainbat teknikaren bidez, parte hartzen duten parametroak kontrolatuz, hondatu edo desbideratzea saihesteko.

EI4.2 Horma-panelak tapizatze erabiltzen diren materialak identifikatu eta sailkatzea.

EI4.3 Horma-panelak tapizatze gehien erabiltzen diren erreminta eta makinak identifikatzea.

EI4.4 Horma-panel bat tapizatze kasu praktiko jakin batean oinarrituz:

- Jarduerak antolatzea, jasotako informazio teknikoaren arabera.
- Behar diren makina, erreminta eta lanabesak identifikatzea.
- Materialak prestatzea (ehuna, goma-aparra edo muletoia), xafla konglomeratu edo kontraxapatuaren formaren arabera, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Goma-aparra edo muletoia xaflaren gainean kokatzea eta finkatzea, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Ehuna zentratzea eta grapatzea, modu egokian modelatuz, lortu nahi diren simetria eta bolumena erdiesteko, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideekin.
- Atzealdea forratu eta grapatzea, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Oihalezaketaren akabera edo errematea egitea, informazio teknikoari jarraikiz, segurtasun-irizpideak aplikatuz.
- Emaizten informazio teknikoa betetzea.

Edukiak

1. Horma-panelen ezaugarrien azterketa.

- o Panel-estilo eta -motak.
 - Galeria zurruna.
 - Lanbrekina.
 - Egitura zurruneke goiburuak.
- o Bionbo-motak.
- o Armairuen ateak edo barrualdea apaintzea.
- o Erabilitako material nagusiak.
- o Hormak eta sabaia oihalezatzeko.
 - Estiloak, motak, formak eta ezaugarriak.
 - Materialak neurtzea eta kalkulatzea.
 - Horma oihalezatzeko teknikak.
 - Sabaia oihalezatzeko teknikak.

2. Hormen oihalezaketa edo tapizaketaren fitxa teknikoaren interpretazioa eta azterketa.

- o Oihalezaketa- edo tapizatze-agindua.
 - Prozesuaren informazioa.
 - Egiteko faseak eta denborak.
- o Produktuaren fitxa.
 - Diseinuaren ezaugarriak.
 - Panel edo hormaren krokisa.
 - Osagaiak.
 - Neurketak.
- o Panel edo hormen osagaien txantilo- edo patroi-jokoa.

3. Panel eta hormen tapizaketako akabera-eragiketak.

- o Ehun, ile-larru eta larruzko hainbat materialen akabera egiteko teknikak eta prozedurak.
- o Tarteko eta amaierako akaberak egiteko eragiketak:
 - Errematatuak, lotuak.
 - Zintaztatzea, azpiltzea eta ertzak jartzea.

- Pasamaneriak jartzea.
- Botoiak, errematxeak, etab.
- Ile-larruei distira eta argizaria ematea.
- Orbanen aurkako produktuak eta abar aplikatzea.
- Produktuen kalitatea egiaztatzea. Anomaliak zuzentzea.
- Akabera-makinak erabiltzean bete beharreko segurtasun-irizpide eta -baldintzak.

4. Hormak oihalezatzeko eta tapizgintzako eragiketarako segurtasun- eta osasun-neurriak.

- Laneko arriskuak prebenitzeko arauak.
- Ingurumena babesteko arauak.
- Prozesuetan bete beharreko segurtasun-irizpide eta -baldintzak.
- Istripu ohikoenen prebentzioa.
- Norbera babesteko ekipamenduak eta segurtasun-bitartekoak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestakuntza-atal hau egiteko, gainditua izan behar du UF1030 Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Altzariak eta hormak tapizatzeko eragiketa osagarriak